

Kostuen egitura

Kostua zerbitzu edo ondasun bat ekoiztean kontsumitzen diren faktoreen balio monetarioari esaten zaio. Kostuen sailkapena honakoa hau da:



- **Kostu finkoak:** Kostu hauek ez dira enpresaren ekoizpenaren arabera aldatzen, hau da, ekoizpena igotzen edo jeisten bada, ez dira kostuak aldatuko. Gure kasuan ondorengoak litzateke: Lokala, ordenagailua, langileen soldata etab
- **Kostu aldakorak:** Kostu hauek ekoizpenaren arabera aldatzen dira, hau da, ekoizpenaren arabera kostuak igo edo jaitsi egiten dira. Gure kasuan ondorengoak litzateke: lana, argi indarra etab. Kostu mota honen formula honakoa da: $KA = Kau \cdot Q$
- **Kostu osoak edo guztizko kostuak:** Enpresak izango dituen kostu totalari esaten diogu, beraz, bere formula honakoa da: $KO = KF + KA$

*Oharra: Q = Kantitatea

Kau: Kostu aldakor unitarioa, hau da, unitateko kostua, formula honakoa delarik: KA / Q

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete, gure kasuan bezala; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik.



Ondorioz, gure kasuan, kostu minimoak erabiltzen saiatzen gara, horrela jende guztia gure produktuaz disfrutatu dezan, inongo bereizketarik egin gabe. Horretarako, gure web orria aurrera eramateko, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabiltzen ditugu.

Enpresen nahia ez da kostuak minimizatzea, mozkinak irabaztea eta bezeroari eskaintzeko balio sortzea da haien nahia, beti ere beren produktuen eta zerbitzuen kalitatea, marka etab zainduz.



Zertan oinarrituta dauden arabera, bi mota bereizten ditugu:

1.- Balioan oinarrituta: Balioan oinarritutako enpresek, kalitatea edota ospearen bidez iritsi nahi du bezeroarengana, hau da, lehia ez da bestea baino garestiago edo merkeago produktua saltzea, baizik eta kalitatean edo ospean nagusi izatea.

2.- Kostuan oinarrituta: Kostuan oinarritutako enpresek aldiz, lehiakideak baino merkeago izan nahi du, kalitatea eta ospea bigarren maila batean utzita.

